

[b]
BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

595. zkia.
XIV. urtea
2006ko abenduaren 15a

Edu Arrillaga Dominikar Errepublikan

**«Kaleko ume gehienak mutilak dira;
neskak prostituzioan sartzen dira»**

elgoibar

www.residencialgeminis.com

48 etxebitza, 2 eta 3 gelakoak

117 garaje eta 76 trasteleku



259.000 €-tik
garaje eta trasteleku barne
(43.093.974 ptas.)



Tfno.: 943 74 80 92



Espacios de Bienestar

Argibideak: INFOLUR C/ Antonio Arrillaga, 1 behea. 20870 Elgoibar. info@infolurnet - www.infolurnet



90 zm-ko oherako nordikoak 29€* BAKARRIK

Zure nordikoa ez da izango amets bat!!



Neurri guztiak ditugu!

Kalitate goreneko edredoi nordikoa eskeintzen dizugu!

Pisua: 250 gr. edo 100 gr. • Ehuna: %100 kotoia

%20ko beherapena ehunetan!

(* 90 zm-ko oherako 250 gramo)



Uki leuna



Airearen zirkulazioa



Mikroklima bero erregulatu



40°-tan garbigarria



Garbiketa lehorrean



Hipoalergenikoa

LAGUNAK

www.textillagunak.com

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

Adierazpena

Ezker Abertzaleak hilabeteak daromatza esanez Euskal Herrian zabaldutako elkarrizketa politikorako prozesua blokeo egoera larrian dagoela. Etengabeko eraso polizial eta judizialek eta eragile politikoen konpromiso argi baten faltak ekarri dute prozesua egoera honetara. Eraso polizial eta judizialean oinarritutako estrategia mantentzea (azken asteotako polizia operazioekin larriagotu dena), gure ekimen politikoari eta masa mobilizazioari dagokionez pairatzen dugun ilegalizazio egoera, epaiketa politikoen mantentzea, Parot doktrina, su etenaren garaian eman diren hamarnaka atxiloteta... adibide hauek guztiek agerian uzten dute apustu bat, gatazkaren konponbideari heldu beharrean elkarrizketa politikoarekin konprometitutako alde baten ahultzea helburu duena.

Halaber, elkarrizketa politiko erresolutiborako Mahaia osatzeko konpromiso argiak hartzeko borondate falta, azken asteotako atxiloteta, adierazpen eta bidetuekin larriagotu egin da, Espainiar Gobernua eta bere presidentea su-etenean erakutsi duten inobilismoaz eta bere garaian Aznar jaunaren gobernuak baino gutxiago egin izanaz harropuzteraino.

Baldintza hauek sortzeko apustua ez da kasuala, ezta neutrala ere. Eskema za-

harren aldeko apustua da, gatazkari zintotasunez erantzuna ematea baino, Ezker Abertzalearen higadura, eta beraz, negoziazio politiko erresolutiborako prozesu batek ezinbestean biltzen dituen eduki politikoen desitxuratzea bilatzen duen apustua. Espainiar eta frantziar gobernuak berriaz ere oker dabilta (behin behinean eta ez betirako tronpatzen direla espero dugu), Gobernu espainiarrak eta frantsesak ez baitute arazo politiko edo tekniko bat Ezker Abertzalearekin. Bere burua naziozat jo eta askatasunean eta bakean bere etorkizun politiko eta instituzionala erabakitzeke eskubide demokratikoa eskatzen duen Euskal Herriaren gehiengo zabal batekin daukate arazoa. Izaera demokratikoa duen arazoa, alegia.

Jazarpena eta errepresioaren aldeko beren apustua beraz, Euskal Herriko gehiengo herritarren aurkako ekintza zuzena da. Mami politikorik gabeko prozesuaren aldeko apustua Euskal Herriaren borondate demokratikoarekiko mesprezua da. Honen ondorioz:

1. Espainiar gobernuaren apustu kontzientearen ondorio diren baldintza horiek dira Euskal Herrian alde anitzeko elkarrizketa politikoaren prozesua garaizten eta ezinezko egiten dutenak.

2. Beraz, espainiar presidentearen eta bere gobernuaren ardura da jarrera eta

baldintza hauek guztiak errotik aldatzea, negoziazio politikoaren bidetik gatazka politikoa konponbidean jarriko lukeen prozesua abian jartzeko egoera sortuz.

3. Aldeen eta hauen eskubideen onarpenetik, konpromisoekiko errespetutik eta gatazka politikoari konponbidea emateko borondate argia izatetik soilik egituratu ahalko da Euskal Herrian oinarri demokratiko sendotetan egituratutako prozesua.

4. Hori da Batasunaren borondatea eta konpromisoa. Espainiar gobernuari dagokio berea zein den erabakitzea.

ELGOIBARKO EZKER ABERTZALEA

“Kabroi” baten hitza

Tristea da aldizkarietako orrialdietara jo behar izatea hizketarako gaitasuna galdu duzuenoi eskua luzatzeko.

Koldarra da pintura potea eskuan hartuta gaueko iluntasuna hura eta beste zer diren idazteko pareta zein atea erabiltzen dituen.

Beste argumenturik ezean iraina besterik erabiltzen ez dakizuenok, pareta batean ni seinalatu arren ez duzue ezer lortuko.

Nere egitekoa betetzen jarraituko dut. Pintura poteak alde batera utzi eta hizketarako gaitasuna berreskuratzen duzuenean badakizue non aurkituko nauzuen. Udaletxeko atean tinbrea jotzea baino ez duzue egin behar.

AINGERU GALLASTEGI ULAZIA

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitate: 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



ELGOIBARKO IZARRA
KULTURAZ ELKARTEA

KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurutxaga **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives, Kokoe K.E., Urruzuno **INPRIMATEGIA** Geru **TIRADA** 4.570 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



KEXAK

• **San Roke kalean lorontziak espaloi gainean jarri dituzte:** "Kiroldegitik aurrera egin duten kalean lorontziak espaloi gainean jarri dituzte. Ez dakigu zein den honen helburua. Seguruenez autoak espaloi gainean ez aparkatzeko estrategia bat izango da, baina oinezkoentzat ere sekulako oztopoa da, batez ere, umeen aukiarekin pasatzeko. Espaloitik jaitsi eta berriro igo behar izaten dugu, eta ez da batere eroso. Lorontziak tokiz aldatzeko eskatuko nuke, eta aurrerantzean, honelako detaileak kontuan hartu ditzatela espero dut".

• **Elgoibar BH Institutorako bidean dagoen zebrabidea ez da ikusten:** "Zebrabideak oinezkoentzat eginak daude eta auto gidariek errespetatu egin behar dituzte. San Roken, Aterpe parean dagoen zebrabidea ez da ikusten, pinturarik gabe dago eta ez du inork errespetatzen. Dagokionari, mesedez, herriko zebrabideak egoera onean mantentzeko eskatuko nioke".



• **San Frantzisko kaleko bizilagunek ezin izaten dute zapatu gauetan lorik egin:** "Aspaldiko kontua da hau, eta denok jakinaren gainean gaude, baina azkenaldian San Frantzisko kalean gertatzen dena jasan ezina da. Duela pare bat aste danbor kontzertua izan genuen goizaldera arte. Gure etxepean gazte batzuk danborra hartu eta sekulako zarata ateratzen egon ziren goizeko 4:00ak arte, eta ez zen udaltzain bat bera ere agertu. Nik usate nuen gaueko 11:00etatik aurrera ezin zela zaratarik atera. Bestalde, herriko gune arriskutsuenetarikoak bilakatzen ari da gure kalea. Zapatuero izaten dira borrokak, eskaparateetako kristalak apurtuta, zikinkeria kale guztian zehar, portalak pixaz beteta... Badakigu tabernak kale honetan daudela eta gazteak bertan ibiltzen direla. Ez gaude horren kontra, baina bai bandalismoaren kontra. Berandu baino lehen, Udalak neurriak hartu beharko lituzke".



Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundia

DANOBAT

kutxa

kondia

GOITI
GRUPO DANOBAT



Perspektibak

Bi marra paralelo ez omen dira sekula elkar ukitzen. Bai bai, oso oso gertu egonda ere ez dira elkarri arraspadatxo bat ere egiteko gai. Bi marren arteko distantzia oso txikia izanagatik ere espazioak noizbehinka engainatu egiten du, eta orduan posible da txiki ikusten duguna txikia ez izatea, uruti egotea, baizik.

Eta gizakia zerbait bada, alperra da eta uruti dagoena eskuratzeko pauso bat, bi pauso, hiru pauso, hamaika pauso eman behar dira; eta badirudi erosotasunak eragindako paraplexia horrek pausoak ematea eragozten duela.

Azkenean, perspektiba kontua dela ohartu naiz: txikia ez dela txiki, uruti dagoela; uruti dagoena ez dagoela uruti, alperrak garela; eta alperraren perspektiba ez dela Cavalierirena, hots, ikuspuntua ez dagoela infinituan, norberaren barruan, baizik: gertu, gertuegi...

Eta gu ere gertu gaude, ondoan. Eta jada ez dakit txikieria iruditzen zaigulako, alperrak garelako edo perspektibarik ez dugulako ez garen bi marrak elkar ukitzeko gai.

Antton Alberdi

[ZORTZIKO TXIKIAN]



CAROL BOYER

SKANDALO DENDAKOA

Neguan gehien saltzen duzuen jantzia?

Hotz handia egiten duenean barruko kamiseta termikoak eskatzen dizkigute.

Elgoibartarrek ematen al diote garrantzia barruko erro-pari?

Bai, badira oraindik garrantzia gutxi ematen dietenak, baina orokorrean balio handia ematen zaio.

Barruko erropa txuria ala koloreduna?

Koloreduna, modemoagoa eta politagoa da.

Panty-ak ala galtzerdiak nahiago?

Galtzerdiak edo iztarrerainoko panty-ak.

Kamisoia ala pijama?

Pijama, baina udan kamisoia ere erabili daiteke.

Hankak epel edukitzeko gomendio bat?

Galtzerdi onak erabiltzea.

Mutilentzat slip ala boxer kantzontziloak?

Boxer estilokoak erabiltzen dira gehiago, slip-a gero eta gutxiago eskatzen digute.

Zer eskatu diozu Olentzerori?


Ezer ere ez. Aurten umea izan da nire opari onena.

Bikotearekin bikain gelditzeko opari bat?

Barruko konjunto batekin beti asmatzen da.

komikia

Hil da gero...



Kokoe 081

[AKORDATZEN NAIZ]



ANTONIO BERASALUZE


1932an jaioa

«Situs inversus»

Ni gauza raro bat naiz, baiÖa orduan medikuak ez zuten antzik eman. Bihotza eskumako aldian Dakar; gibela, beste aldian. Hau taillarrian hasi eta gero jakin naban. Rebisio medikua egin ziguen, eta handik zortzi egunera deitxu zien direkzioetik misterio osoz: "Ez dot uste grabia izango danik, baiÖa zeozek borroso urten dau, eta Bergarara jun bihar dozu Seguridade Sozialera, hobeto ikustera".

Nik ez naban pentsatzen gerritxik gora konplikaziorik nakanik, beti hankak izan dira nere gaixua, eta 22 urtekin zer ete naukan preokupatzen hasi nitzan. Igande goiz baten jun nitzan Bergarara, eta txiste bat bezela pasau zan. Gerritxik gora erropak kendu, eta makiÖa baten sartu nitzan.

IpiÖi nitzan pantailla aurrarian, neure ustez ondo, eta medikuak argixa emendau zaba-



nian, "dese usted la vuelta", esan zidan. Argixa piztu, eta ni aurrera begira nenguan: "Usted estaba asÖ?", eta nik baietz esan nion. Berriz argixa emendau, eta esan zidan bihotza eskumako aldian nakala.

Orduantxe entzun naban hori lehenengo aldiz. Medikua askotatik pasautakua naiz nere hanken kontua dala ta, baiÖa ez ziran honekin konturatu. Gerora ere gaitxotu nitzan, eta bihotzeko erreumia nakala esan zien: klaro, ezkerreko aldetik bihotza ez zan ondo entzutzen. Ni kezkauta geratu nintzan asuntonekin, eta beste mediku baten gana jo naban. Harek esan zidan dana nakala alderantziz, ez bihotza bakarrik. Nahiz ta lekuz aldatuta egon, ondo funtzionatzen dabala esan zien.

[GURE BERBAK]

Helburuzko esaldixak (eta 3)

Helburuzkueri amaieria emateko, aditz jokatugabeko egitura batzuk ekarriko ditugu gaur.

Hona zein diran eta, ondoren, adibide batzuk: **-TZEKO**, **-TZEKO INTENTZUIA (ASMUA)**, **-TZEKOTAN**, **-TU NAHIXAN eta -TZERA**.

- *Auzuak egoten dituk alkari laguntze-ko, ezta? Lanetan da.*
- *San Antonio egunian, basaritxarrak etortzen ziran oiÖez, tren espeziala hartze-ko, goizian seirak-seitxerdietan izaten zan.*
- *Juan nitzan hor San AntoliÖ aldera edo, peskan egitxeko intentziukin edo, eta IntxaustiÖekua, Gillermo, han inguruan zan.*
- *Gero, eskolan, beste mailla baten hasteko asmuan, baiÖa gerria etorri zan, eta kitto!*
- *Bakaziotara jutekotan gera, baiÖa ez dakigu nora.*
- *Ni lelengo hasi nitzuan eurona egin nahixan; nahastu nitzuan, esan najuan "que le den tila a todo". Nik neuria egingo juat, eta kitto!*
- *Sastre ikasi zabanian Jonek, aitta gaitxotuta zauan ordurako, eta aittari laguntzera juaten zan.*
- *Albitxuriko esplanada hortan da, hamen ere etxia danian eitxeko asmuan daure.*

Jesus Mari Makazaga

www.elgoiBARREN.net

Jaso nahi al dituzu notiziak e-postaz?



Bete web orrian daukezun **Albisteak e-postaz jasetzeko fitxa**.
110 lagunek egunero jasotzen dituzte dagunekoa.



EDU ARRILLAGA ARGAZKILARIA

«Dominikar Errepublikako haur goibelak eta alaiak dira erakusketako protagonistak»

“El Vuelo de la Chichigüa” izeneko argazki erakusketa, Eduardo Arrillaga argazkilaria- ren lanik berriena dugu. Pasa den apirilean, Santo Domingoko espainiar kultur gunean ezarri zen esposizio hau estreinakoz. Oraingo honetan, el- goibartarraren lana gertutik ezagutu nahi duen orok, horretarako abagunea izango du abenduaren 15ean hasi eta ur- tarrilaren 7ra bitartean, Kultur Etxean. Erakusketak, azken bost urteotan Eduardok Dominikar Errepublikan kaleko hau- rren munduan bameratuz buruturiko lana laburbiltzen du. Argazki erakustaldia ezezik, izenburu bereko argazki liburua ere, argitaratuko da abenduaren erdialdean, dena ondo badoa. Liburuko argazkiak Edurenak dira eta argazki oinak eta testua, berriz, Jasone Osororenak.

► Zelan sortu zen Dominikar Errepubli- kako kaleko haurren egoera islatzeko ideia?

Nekazal munduan zentratutako ar- gazkilaritzan eman nituen nire aurreneko urratsak eta proiektu hau bukatze- ar- nengoela, herrialdearekin zeharo maitemindu eta Dominikar Errepublikako lan berri bat egiteko grina sortu zitzaidan. Baina, mo- mentu hartan, bi emakume gurutzatu ziren nire bidean; “Niños del Camino” GKEko bi bolondres, alegia. Beren elkarteko lana ezagutzera emateko asmoz, nire esku hartzea eskatu zidaten. Dominikar Errepu- blikan kalean bizi diren haurren egoera ezagutarazi nahi zuten. Baiezkoa eman nien eta guztira, 5 urtez ibili naiz Domini- kar Errepublikara joan etorriak egiten. Ho- nela, Dominikar proiektua bukatu genu- nean, Maria Blanco, “Niños del Camino” erakundeko zuzendariak, errealitate hura jendaurrean erakusteko proposamena lu- zatu zidan. Beranduago etorriko ziren, erakusketa eta liburua. Lan hau, GKEei esker gauzatu ahal izan dut. Modu berean, azpimarratu, proiektu honek Gipuzkoako Giza Eskubideen Sailak eskainitako sariari esker eta “Haurralde” elkarteak egitasmoan sinetsi izanagatik ikusi duela argia. Osterantzean, lan hau kaxoi barruan geratu izango zen ziurre- nik.

► Zer esan nahi du “Chichigüa” hitzak?

Dominikarreraz, kometa esan nahi du. Haurrek eta helduek kometak hegaldatze- ko zaletasun handia dute. Haurrak kalera

irriten direnean ordea, beren bizitza era- bat aldatzen zaiela ohartzen dira, eta ko- metak aieratzeari uzten diote. Liburuko azalak, ordea, ko- m e t a r e n hegaldia-

rekin itxaropenerako aukerarik badela he- larazi nahi du.

► Zer erakutsi nahi da argazki erakus- keta honetan?

Jendearen bizimodua azaltzea, ahalik eta modurik estetikoenean, ikuslegoak aurrean dituen irudietatik ez dezan begi- rada alboratu. Bestela esanda, bertako GKEek ez dute egoeraren alderdirik belt- zena azaltzerik nahi izan. Inork baino ho- beto dakite, zein den errealitatea eta hori aldatzeko ahalegin izugarria egiten ari di- ra. Azken finean, GKEek egiten diharduten lanaren emaitzak ere aintzat hartu dai- tezen eta jendearengana iristeko zu- bi izan dadin. Guzti honen ondorioz, era- kusketara- ko ar-





Jasone Osoro

Liburuan kolaboratu du

Jasone Osoro kazetariak Edurekin bidaiatu zuen Santo Domingora iragan den apirilean eta bertoko haurren istorioak lehen eskutik ezagutzeko aukera izan zuen. Honatx bidaia haren inguruko Jasoneren zenbait gogoeta:

“Haur bakoitza mundu bat da eta arrazoi desbedinak medio daude kalean, baina guztiak aurre egin behar diete bakardadeari eta bertan aurkitzen dituzten arerioei. Kaleko haurrek kaleko gainontzeko haurren artean bilatu behar dute babesa. Maitasun falta dute eta komunikatzeko itzelezko beharra. Era berean, konbentzimendu osoa dute egunen batean lortuko dutela dauden



egoeratik ateratzea. Energia asko transmititzen dute eta ez dute sekula irribarrea galtzen. “Niños del Camino” GKEak egiten duen lana estimatzekoa da. Inoiz ez dut ahaztuko han bizitakoa eta estreinakoz haurrak ikusi nituenean eskaini zidaten irribarrea. Guztiak daude nire buruan eta bihotzean”.

gazkiak hautatzerako orduan, aukeraketa bat egin zen. 36 argazkitako 700 argazki film baino gehiagoren artean, 45 argazki hautatu ditugu erakusketarako, (liburuan argazki gehiago daude). Liburuaren gainean, berriz, azpimarratu beharra dago, “El vuelo de la Chichigüa” liburuaren salmentak ematen digun diruak, ale gehiago argitaratzeko erabiliko ditugula. Gisa honetan, hedapen handiagoa erdietsi eta Santo Domingora ere bidaliko ditugu, GKEek ere erabili dituzten; bai saltzeko edo jendearen artean banatu eta gizartea hango egoeraz jabetzeko. Guk lortu nahi dugun helburua, bai han (potzuz bestalde) eta bai hemen, bera da: GKEen lana sustatu eta gizartea sentikortzea, eta erakunde zein instituzioak mobilizatzea.

► Zein bizi baldintzetan dira kaleko haurrak?

6-8 urte bitarteko haurrak kalera atera behar izaten dute, jateko zerbaitek ahal izateko, beren familiek pairatzen duten miseria tarteko. Honi, kasu ugarietan, etxera mozkortuta bueltatzen den gizonekoaren arazoa erantsi behar zaio, zeinek, emakumea jipoitzen duen eta baita haurrak ere. Ni Santo Domingo iparraldean egon naiz. Bertan, ehun auzo baino gehiago daude eta binztanlegoak bizi

«6-8 urte
bitarteko
haurrak kalera
atera behar
dute jatekoa
ahora
eramateko»

baldintza ezkorretan dirau, ez baitute ez urrik, ezta argirik ere. Beren bizitokiak, txapaz eraikitako txabolak dira. Haurrek autoetako beirak garbitu, tabernetako botelak jaso eta batik bat, jendearen oinetakok garbitzen dituzte. Oro har, kalean dauden ume gehienak, mutilak dira, neskak prostituzioaren munduan murgilduta bizi diren bitartean. Kaleko haurrek ahal duten tokian egiten dute lo: malekoian, zubi azpietan, lur azpiko pasabideetan. Desagertuak izan diren haur ugariaren kasuak ere ezagutu ditugu. Beste hainbat erreak izan dira edo drogaren sareetan preso erori dira. Badira HIESaz kutsatutako umeak ere.

Kaleko haurrek lapurreta eta antzeko delituetan sartuta aurkitzen dituzte maiz beren buruak, edo bestela, enbarazu egiten die gainerako jendea, eskean jarduteagatik. Poliziak, etengabe haurrak atxilotzen ditu, harik eta GKEetako kideek espetxetik ateratzen dituzten arte. Jakin badakigu, poliziak haurrak jipoitu ere egin ohi dituela. Nire iritziz, arazorik handiena, hezkuntza da. GKEen bitartez bada hezkuntzarako sarbidea, baina, laguntza hau oso mugatua da. Gainera, maiz, haurrak ostera ere, kalera itzultzen dira.

► Zer ikus dezakegu erakusketan?

Kaleko haurrek bizi duten infernua eta haurtzaroren edertasuna uzartu ditugu. Honenbestez, haur goibelak eta alaiak dira erakustaldiko protagonistak. Malekoian azpian edo Mc Donalds ondoan lo egiten duten haurrak; espetxeetan preso daudenak, panpinekin jolasean diharduten neskatilen irribarrea edo plastikozko ur botilekin jostatzen diharduten mutil koxkorren argazkiak ikus daitezke. Itxaropenerako zirikaturik baden arren, maiz haur hauen istorioetan heriotzaren mamua agertzen da. Nahiz eta salbuespenak badiren, kaleko haurren egoera oraindik latza da eta beraz, lagundu beharra dago ahal dugun neurrian.

[PROTAGONISTA]



Uxue **Alberdi**

Uxue Alberdi elgoibartarrak Errenteriako XIX. Xenpelar bertso saria irabazi du. Literatura eta bertso paperen alorrean sari desberdinak irabazi ditu Uxuek orain arte, baina bat-bateko lehiaketan jantzi duen lehenengo txapela izan da honakoa. 18 eta 24 urte bitarteko 12 bertsolarik hartu zuten parte txapelketan. Bi kanporaketa jokatu dituzte, eta 6 onenak iritsi ziren finalera. 754 punturekin, Uxueri eman zioten irabazlearen saria. Uxue apirilean hasi zen bat-bateko txapelketetan parte hartzen, eta ez zuela irabazterik espero aitortu digu. Zorionak!

[NOTIZIA]

42.600 euro gastatu ditu Udalak Gabonetako argiak jartzeko

Abenduaren 8an piztu zituzten Gabonetako argiak. Aurtengoan inoiz baino irudi gehiago jarri ditu Udalak. Guztira 90 argi irudi piztu dira herriko kaleetan, iaz baino 30 gehiago. Udalak 42.600 euro gastatu ditu aurtengabonetako argietan, iazko aurrekontuaren bikoitza, hain zuzen ere.

Herriko kale eta auzo guztietara

Udalaren aurtengo apostua herriko kale eta auzo guztiak argitzea izan da. Honekin, azkenaldian Elgoibarren sortu diren kale eta auzo berrietan ere jarri dituzte Gabonetako argiak, besteak beste, Basarte, Gabriel Krutzelaegi, Aizkori edo Errotaberri plazan ipini dituzte argi apaingarriak. Bestalde, Merkatu Plazako fatxada nagusiak,



Alizola, udaletxeko atzealdeak eta Bernardo Ezenarro kaleak argiztapen berezia daukate. Aipatzekoa da baita ere, herriko 4 gunetan (Osasun Zentroaren aurrean, Leku Ederren, Urasandiko Haur Eskolan eta Sig-mako josteko makinan) elur oreinez osatutako eszenografiak jarri dituztela.

[ZENBAKIA]

26


Bukatu da AtxutxiamaiKa Aisialdi Taldeak antolatutako negulekuetan izena emateko epea. Aurtengoan 26 umek hartuko dute parte ekintza honetan. Abenduaren 26tik 29ra eta urtarrilaren 2tik 5era bitartean, Elgoibarko Herri Eskolan bilduko dira ume hauek AtxutxiamaiKako begiraleekin.

asteko [ARGAZKIA]



Egutegiari begiratzen badiegu, egun batzuk falta zaizkigu oraindik neguan sartzeko, baina tenperaturari erreparatu, inork ez du zalantza jarriko negua gainean daukagula. Aste honetan 0 gradu markatu ditu termometroak. Atzo goizean auto guztiak izoztuta esnatu ziren. Argazkian ageri den bezala, umeak eskolara eraman aurretik kristala garbitu behar izan zuen emakume honek, eta ez zen bakarra izan. Herriar askorentzat horixe izan zen atzo goizeko lehenengo lana. Jende guztia ondo jantzita ikusi dugu kalean. Horixe da hotzari aurre egiteko modu bakarra; barrua bero mantentzea.

Elgoibarko ongizate politikaren egoera salatu du Einbiou Herri Plataformak



Einbiouk Elgoibarko ongizatearen egoera aztertu du, alor honetako hainbat eragileren laguntzaz, eta beraien hitzetan, Udaleko ongizate politika ez da ona: "Ongizatea bigarren mailako batzordea izan da beti, inoiz ez da gizarte-laguntzei buruzko informazio kanpainarik egiten eta jende askok ez daki laguntzako eskatu eta aurrekontuak ez dira nahikoak behar guztiei aurre egiteko". Einbioukoen iritziz, San Lazaro Egoitza eta Eguneko Zentroa txiki gelditu dira: "San Lazaro egoitzan 15 laguneko itxaron zerrenda dago, eta Eguneko Zentroak 12 pertso-

nentzako lekua dauka. Elgoibar bezalako herri batentzat oso gutxi da. Gainera, San Lazaro Egoitza oso leku txarrean dago, eta ospital bihurtu da".

Proposamenak

Einbioutik egoera hobetzeko proposamenak luzatu dituzte: "Zentro sozial-sanitarioa izan beharko luke egoitzak mediku zerbitzu eta prestazioak hobetzeko, langileen egoera zaindu, informazio kanpainak egin..." Alderdi politiko guztien eta ongizateko talde eragileen arteko akordioa ezinbestekoa dela esan zuten.

Elgoibarko aditz-taulak kaleratu ditu Jesus Mari Makazagak

Deba Ibarreko Badihardugu Euskara Elkarteak eskualdeko aditz taulen bi bilduma berri argitaratu ditu. Horieta bat Jesus Mari Makazagak osatutako Elgoibarko aditz taula da. EHUko irakasle eta euskal filologoa dugu Jesus Mari Makazaga eta azken urteotan lan handia egiten ari da Elgoibarko euskararen inguruan. Doktoretza tesia ere, gure herriko hizkeraren gainean egin zuen. Elgoibarko Izarrako bazkideek etxean jasoko dute liburuxka hau. Gainontzekoek Elgoibarko Izarra Elkartearen edota Pixintxu eta Gorostiza liburu dendetan erosi dezakete 3 eurotan.

[MOTZ-MOTZIAN]

AEKren tabemarako laguntzaileak

AEK euskaltegiak Gabon Zahar ferian jartzen duen tabemarako jendea behar du: taloak egin, ogitarte-koak prestatu, taloak eta edariak saldu... Prest dauden herritarrek AEK euskaltegira jo dezakete (Plaza Txikian duen lokalera), 943 741332 telefonora deitu edo elgoibar@aechnet.net helbidera mezua bidali.


Ainhoa Lendinez Bai ala Ez lehiaketako irabazle

Hilabete honetan Ainhoa Lendinez izan da BARREneko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Zumaiaiko Zelai Talasoterapia hotelean bi laguntzako zirkuitoa irabazi du. Datorren hilabetean, Gabi jatetxean bi laguntzako afaria zozketatuko dugu.



Amaia Andonegirentzako Azkue argazki dendaren saria

BARREneko informatika gehigarrian egin genuen lehiaketako irabazlea Amaia Andonegi izan da. 100 argazki euskarri digitaletik paperera pasatzeko aukera eskaini dio Azkue argazki dendak.



Ikerketa baten arabera, familia bakoitzak 1.068 euro inguru gastatuko ditu Gabonetan.

Zuenean ere diru asko gastatzen al da Gabonetan?

FELISA CASADO
Etxekoandrea
63 urte



“Normalean ez dut begiratzen zenbat gastatzen dudan, baina beharrezkoa bakarrik erosten saiatzen naiz. Prezioak konparatzen ditut eta onena aukeratzen dut.”

MONSE BAO
Gerontologoa
35 urte



“Gutxi gastatzen saiatzen naiz. Jatekoan ez dut asko gastatzen, oparietan gehiago, baina opari bana egiten diet umeei. Gehiegi gastatzen da Gabonetan.”

M. JESUS LAZKANO
Dendaria
45 urte



“Nahiko moderatuak izaten gara, baina askotan dirua konturatu gabe joaten da. Jatekoa denon artean ordaintzen dugu eta opari bezala detailetxoak egiten ditugu.”

IÑAKI ZIARRETA
Modelista
27 urte



“Ez, hori baino askoz gutxiago gastatu beharko dut derri gorrez. Etxea ordaintzen ari naiz, beraz, Gabonetan ez dut ezer berezirik egingo. Langostino batzuk jan eta kitto!”

[BAI ala EZ?]

Lortuko al da emakume eta gizonen arteko berdintasuna?

BAI %62

“Bai, halakoren baten pare samarrian jarriko dira, baina majo kostako da. Beste bi generazio gutxienez! Bitartean planak, plan-gintzak eta beste hainbat proiektu beharko dira.”

EZ %38

“Ez. Gauza batzutan berdinak gera, baina beste askotan oso desberdinak, eta nere ustez gainera, danian berdintasuna nahi izatiak ez dauka zentzurik.”

Datorren asterako... **Udalak 42.600 euro gastatu ditu Gabonetako argiak jartzeko. Gustatzen al zaizkizu Gabonetako argiak?**

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) **ERANTZUNA**

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

Jaiotza Lehiaketaren XX. edizioa izango da asteburu honetan

Elgoibarko parrokiak antolatuta, asteburu honetan izango da Gabonetako Jaiotza Lehiaketaren XX. edizioa. Bihar, zapatua, goizeko 11:00etatik 13:00ak arte eman daiteke izena Parrokiako lokaletan (sarrera Trenbide kaletik), eta jaiotzak igande goizerako eraman beharko dira San Bartolome Parrokiako arkupeetara. 14 urtetik beherako elgoibartar guztiak hartu dezakete parte, eta guraso edo anai-arreben laguntza ere onartzen da. Bakoitzak aukeratu dezake materiala, baina neurria 75x55 zm-koa izan beharko da gehienez. Sari banaketa eguerdiko 13:00etan egingo da. Bost lan sarituko dira guztira. Ondoren, jaiotza guztiak ikusgai jarriko dira Errosario kaleko 7. zenbakian dagoen lokalean.



Euskararen Nazioarteko Eguna Elgoibar Ikastolan

Elgoibar Ikastolan modu berezian ospatu zuten Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an. Pregoia irakurri ondoren, Argitxo iratxoaren urtebetetze eguna ospatu zuten. Bertso, musika eta dantzarik ez zen falta izan. Patata tortila txapelketa egin zuten, jolas herrikoiak, lehiaketak... Bazkal ostean, berriz, dantzaldia eta txokolate jana izan zuten. Euskara sustatzeko helburuarekin, egun bikaina pasatu zuten ikasle eta irakasleek.

[IKAS KONTUAK]

Zigorren ordezkoi altematiba

Nerea Mendizabal pedagogoa Zigorren ordezkoi altematiba ikastaroa eskainiko du Elgoibar Ikastolan, bi urteko umeen gurasoentzat. Abenduaren 19an izango da, arratsaldeko 17:30ean.

Gabonetako jaialdia

Elgoibar Ikastola eta Pilar ikastetxeko ikasleek Gabonetako jaialdia egingo dute abenduaren 21ean. Ikastolako DBHko ikasleek bi saio eskainiko dituzte: lehenengoa ikasle txikientzat izango da eguerdiko 14:15ean hasita eta iluntzeko 19:00etan gurasoentzako jaialdia eskainiko dute. Herriko Antzokian izango dira bi saioak. Pilar Ikastetxeko jaialdia, bestalde, ikastetxean bertan izango da, 14:45ean hasita.

Gabonetako kontzertua

Utero bezala, Inazio Bereziartua Musika Eskolako ikasleek Gabonetako kontzertua eskainiko dute datorren abenduaren 22an, arratsaldeko 20:00etan San Bartolome Parrokan. Ikasle bakoitzak bere instrumentua hartuta, musikarako dituen abileziak erakutsiko ditu.

[IRTEERAK]



Herri Eskolako mendi irteerak

Herri Eskolako mendi taldeak bi irteera egin ditu azken bi hilabeteotan. Lehenengoa Amora egin zuten. Argazkia bertako gurutzean aterata dago. Azaroan, bestalde, Irimo mendian izan ziren. Urretxuko Santa Barbara auzotik Deskarga aldera abiatu ziren eta Gorlatik Irimora. Oraingo honetan oso eguraldi txarra izan zuten.

GAZTIA NAIZ

Gazte gaia...

ARIMA BELTZA ren

IRITSI DA AGUR ESATEKO ORDUA. 10 URTE ETA GERO, ABENDUAREN 23AN ESKAINIKO DU AZKEN KONTZERTUA ARIMA BELTZA TALDEAK KULTUR ETXEKO SOTOAN. HERRIAN ETA HERRITARREN AURREAN EMANGO DIOTE AMAIERA EUREN IBILBIDEARI. GAURKOAN TALDEKO LAU KIDEREKIN HITZ EGIN DUGU: IÑIGO ARAUJO, ION GURRUTXAGA, PATXI ZABALETA ETA AITOR BADIOLAK AZALDU DIGUTE AMAIERA HONEN ARRAZOIA. MUSIKAN ZULO HANDIA UTZIKO DUTE DUDARIK GABE, BAINA HIRU DISKO LAGA DIZKIGUTE EUSKARAZKO BLUES DOINUAK ENTZUTEN JARRAI DEZAGUN.

Gauza guztiak hasi eta amaitu egiten dira. Bizitza horrelakoxea da, eta beti iristen da agur esateko ordua. Bizitzaren zikloaren legea da. Oraingoan Arima Beltza taldearen amaiera iritsi da. Abenduaren 23an izango da Arima Beltza zuzenean ikusteko azken aukera. Gurrutxaga, Iñigo, Patxi, Badiola eta Alonso azkenengo aldiz igoko dira elkarrekin eszenatokira.

Zergatik?

Taldekidetza esanetan, emanaldietan giro aparta badute ere, proiektu berri bat prestatzeko dakarren lanari aurre egiteko baldintza egokirik ez izateak bultzatu di-

tu banatzeko erabakia hartzera: "nik pertsonalki, ez neukan beste disko baten prestaketa eta grabaketa lanetan sartzeko indarrik, astunegia egingo litzaidake, nekatuta nago", esan digu Aitor Badiolak. Gainontzeko kideek ere gauza bera adierazi digute. Iñigo Araujoren esanetan, "disko bat grabatzeak diziplina handia eskatzen du eta une honetan, taldea ez zegoen diziplina horretan sartzeko moduan".

Hamar urte, hamaika istorio

Hamar urte bizitzako zati handi bat da, eta hamar urtetan denetarik izan dute. Gauza onak eta txarrak noski, baina honelakoetan, hobe izaten da txarrak ahaztu eta onekin gelditzea. Aitor Badiolak honela laburbildu digu bere esperientzia: "niri satisfazio handia eskaini dit taldeak. Lehe-



BARREN

AGURRA

nengo diskoarekin Madrilera joan ginen SGAEk antolatutako musika sarietan izendatuta eta hori kristona izan zen, ez genuen espero. Eta honetaz aparte, azken 8 urteetan 20 kontzertu gutxienez eskaini ditugu urtero, eta hori marka oso ona da. Blues-rock musika euskaraz eginez hain urrunera iristeak satisfazio handia eman dit.

Patxi Zabaletak urtebete pasa egin du taldean, eta berari motza egin zaio: "oso esperientzia polita izan da niretzat. Abestiak apur bat moldatu, grabatu eta kontzertuak eskaintzen hasi nintzen. Motza egin zait, pena da orain amaitzea, baina ondo amaitzen dugu, goian gelditzen gara, eta jendeak goian gogoratuko gaitu".

Kontzertuak

1998ko abuztuan Soraluzeko Gaztetxean debutatu zutenetik, hamaika kontzertu eskaini ditu taldeak eta musikari garrantzitsu askorekin jotzeko aukera izan dute: Fito y Fitipaldis, Larry McCray, Tonky Blues Band, Los Reyes del K.O., Naco Goñi edota Raimundo Amador bezalako musikariekiko jo dute. Euskal Herria izan da batez ere, beraien eszenatokia, baina Estatuan zehar ere bi bira egin dituzte, bata Cadizen eta bestea Galizia aldean.

Eskerrak

Arima Beltzakoek eskerrak eman nahi dizkiete urte hauetan izan dituzten jarraitzaile guztiei, eta batez ere, Aitzol Garmendia eta Andoni Rementeriarri: "Aitzolek sekulako lana egin du webgunean eta abestietan, eta Andoniren furgonetan gure ibilgailu ofiziala izan zen hasieran". Gaztelupeko Hotsak disketxea ere oso ondo portatu dela aipatu digute, eta Kultur Errota bamean sartu izanak ere izugarri lagundu diela aipatu digute: "benetako zaleei blues estiloa entzuten jarraitzeko eskatuko nieke, eta estilo honen gainean hausnartu dezatela" esan digu Gurrak. Lander Trinidad taldekide ohia ere eskerrak eman nahi dizkiete.

Jarraitzaile batek baino gehiagok isuriko du malkoren bat abenduaren 23an. Betirako ote da? egunen batean akaso, berriro elkartuko diren esperantza mantenduko dugu: "nik ez dut esan hau betirako agur bat denik, ateak zabalik uzten ditugu, eta egunen baten, berriro elkartu gaitzeko", esan digu Badiolak.

historia pixkat



- Arima Beltza taldearen lehen urratsak Aitor Badiola abeslari-gitarjoleak eta Ion Gurrutxaga abeslari eta baterijoleak eman zituzten. 1995ean egin zituzten elgoibartarek lehen entsaioak elkarrekin. Igor Txurruka hasi zen baxujole moduan eta handik pixkatera Lander Trinidad gitarjolea gehitu zitzaion. Txurruk taldea uztea erabaki zuen eta Iñigo Araujok hartu zuen bere lekua.

- 1998ko abuztuaren 8an eskaini zuten lehenengo kontzertua Soraluzeko Gaztetxean.

- 2000. urteko irailean "Arima Beltza" izeneko diskoa kaleratu zuten.

- 2001ean Madrilan izan ziren SGAEk antolatzen duen Premios de la Música ekitaldian. Euskarazko abesti onenaren atalean zeuden izendatuta "Arima beltza" abestiarekin. Ez zuten saria lortu, baina esperientzia bikaina izan zela aitortu digute.



- 2002ko urrian "Blues sustraia" izeneko bigarren diskoa kaleratu zuten.

- Ion Gurrutxagak grabatu zituen perkusioa eta ahotsa, baina taldeak aldaketa garrantzitsua izan zuen une honetan: Elur Arrieta sartu zen baterijole moduan eta Ion Gurrutxaga abeslari izatera pasa zen. Zuzenekoak indartu eta ikusleekin harreman zuzena izatea lortu zuten honela.



- 2003ko udan Getxoko Blues jaialdian jo zuten Naco Goñi eta Raimundo Amadorrekin.

- 2005eko maiatzean Lander Trinidad gitarjoleak taldea utzi zuen. Bere lekuan Patxi Zabaleta sartu zen.

- 2005eko urrian hirugarren diskoa argitaratu zuten. "Mundurako atekak" jarri zioten izena.

- 2006ko abenduaren 23an eskainiko dute azken kontzertua Kultur Etxeko sotoan.



EUSKARAZKO PRODUKTUEN SALMENTA

Udalak euskarazko salgaien 4.500 katalogo banatuko ditu

Eskara biziberritzeko egitasmoaren baitan eta Gabonetan opariak euskaraz egiteko abian den kanpainaren bidez, Udaleko Eskara Sailak, euskarazko produktuez osaturiko 4.500 katalogo banatuko ditu herritarren artean.

Ekimen honen bidez, euskaraz ekoizten diren produktuak berri eman nahi da eta aldi berean, beraien salmenta sustatu: musika, informatika materiala, film, liburu, aldizkari, jostailu, joko eta web helbideak, besteak beste. Merkatuko alerik interesgarrienak eta berrienak biltzen ditu honako katalogoak. Baita, salgaien egile,

salneurri eta ezaugarrien inguruko informazio zehatza ere. Egitasmo honek, hizkuntzaren transmisioan eragin nahi du. Gurasoentzat ere baliagarria da liburuxka hau, euren seme-alabentzat lagungarriak izan daitezkeen euskarazko salgaien zerrenda ezagutzeko aukera luzatzen baitie.

Hitz urritan, euskaraz bititzen laguntzea du xede aipaturiko liburuxkak; euskaraz jolastu, ikasi, hezi eta gozatzeko. Katalogoa sarean kontsultatzeko aukera ere badago, www.katalogoa.org helbidera joz, edota, Elgoibarko Udalaren ondorengo web gunean: www.elgoibar.org.



Parrokiako jaiotzak abenduaren 20an irekiko ditu bere ateak

Urtero legez, aurtengoan ere, Elgojaitzak antolatuta, jaiotza ikusgai egongo da Parrokiako kaperan abenduaren 20tik aurrera. Datorren asteazkenean izango da inaugurazioa, iluntzeko zortzietatik aurrera. Ordutegia, astelehenetik ostiralera (17:30- 20:30) eta larunbat zein jai egunetan (10:30-13:30) eta (17:30-20:30).

Heri Irratia abian da Eibarren

Martitzen honetan Eibarko Herri Irratiaren aurkezpen ekitaldia ospatu zen Unzaga kalean duen egoitzan. Irrati emanaldiak albistegi lokalekin hasi ziren azaroaren 28an. "Eibarko Porrusalda" izeneko irratsaioa ere, dagoeneko antenan da. Eibarko Herri Irratiak Deba Barreneko gaurkotasunaren berri emango du. FM 90.7an entzun daiteke.



Gabonetako Bertso jaialdia abenduaren 28an ospatuko da Herriko Antzokian 22:30etik aurrera



Aurten Gabonetako Bertso Jaialdiaren XXIII. edizioa ospatuko da abenduaren 28an, eguena, Herriko Antzokian eta iluntzeko 22:30etik aurrera. Bost bertsolari arituko dira taula gainean: Amets Arzallus, Unai Iturriaga, Arkaitz Estiballes, Fredi Paya eta Jon Martin. Gai jartzaila lanetan, berriz, Uxue Alberdi kazetari, bertsolari eta idazle elgoibartarrak jardungo du.

Sarrerak dagoeneko salgai daude Elgoibarko Izarran, bost euroren truke. Gazteek, jubilatuek eta Elkarteko bazki-

de direnek, sarrera merkeago eskuratu ahal izango dute, hiru eurotan, hain zuzen ere. Ekitaldi honen antolatzailea, Elgoibarko Izarra Kultur Elkarte da eta laguntzaileak, berriz, Elgoibarko Udala eta Foru Aldundia dira.

Iazko bertso jaialdian, Herriko Antzokia jendez lepo bete zen eta bertaratu zirenek bertso saio polita ikus eta entzuteko aukera izan zuten.

Aurtengoan ere, bertsozaleek hitzordu galduezina duzue hilaren 28an Elgoibarren.

XVI. ELGOIBARKO NAZIOARTEKO XAKE TXAPELKETA

Igande honetan jakingo dugu nor den xake txapelketako irabazlea

Astelehen honetan aurkeztu zen Elgoibarren, XVI. Nazioarteko Xake Txapelketa. Guztira, 10 izan dira aurtengo edizioako parte hartzaileak. Asteazkenean, egunero xake partidak jokatu dira Kultur Etxeko Hitzaldi gelan arratsaldeko 16:00etatik atzera. Biharkoa izango da azkena, eta igandean iluntzeko 20:00etan sari banaketa egingo da Kultur Etxean.

Jokalarien artean, faborito nagusia, Oleg Komeev errusiarra izan da, Azerbaijaneko Azer Mirzoev (Deustuko Nazioarteko Txapelketako garailea) eta Eric Prie frantziarregandik (frantziako txapeldun ordea) jarraituta. Euskaldunen artean, Mario Gomez (Euskadiko txapelduna), Iñigo Argandoña eta Santiago Gonzalez aurkitzen dira. Espainiarrei dagokionez, berriz, Ivan Salgado 15 urteko ga-



liziarraren partaidetza nabarmentzekoa da, 14 urtez beherakoen Munduko Txapelketan 4. postuan sailkatu baitzen. Berritasun moduan aipatu, Tatiana Kononenko emakume ukrainarraren parte hartzea.

Morkaiko M.E.aren argazki erakusketa gaurtik aurrera ikusgai



Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta, aurtengo argazki lehiaketara aurkeztutako argazkien erakusketak gaur irekiko ditu bere ateak, 19:00etatik aurrera Kultur Etxeko Sotoan. Guztira 36 lan aurkeztu dira lehiaketara. Argazki erakusketa abenduaren 22ra arte luzatuko da. Bertaraten zaretenok, argazkiei puntuazioa emateko aukera ere izango duzue. Sariak honakoak izango dira: 150 euro papereko argazki hoberenarentzat; 100 euro argazki digital hoberenarentzat eta 100 euro ikuslekoaren saria bereganatzen duen argazkiarentzat.

6 bikote elgoibartar aritu ziren Zarautzeko bikotekako lasterketan

Pasa den abenduaren 3an, Zarautzen bikotekako lasterketa ospatu zen eta sei bikote elgoibartarrek hartu zuten parte. Pilar Arriola eta Asier Arrietak osaturiko bikotea izan zen aurrenekoa helmugara iristen, elgoibartarrei dagokionez. 35:17ko denbora egin zuten eta sailkapen orokorrean 34. postuan sailkatu ziren. Idoia Ara-

kistain eta Aitor Osorok, berriz, 35:46ko denbora lortu zuten. Mari Carmen Isasti eta Julian Rodriguezek (39:19), Ainhoa Lendinez eta Aitor Bengoak (39:22), Lourdes San Martin eta Javier San Martin (40:39); Idurre Ramos eta Manuel Ramosek (45:49) eta Jone Ariznabarreta eta Jesus Begiristain (47:38).

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi 0 - S.A.D. Eibar - B 0
Elgoibar 2 - Sanpedrotarrak 1 (erreg.1mail)
Zarautz 3 - Elgoibar 0 (neskak)
Aretxabaleta 0 - Elgoibar 2 (kad.)
Basconia 1 - Haundi 0
Elgoibar 6 - Ilintxa 0 (kad.)

ARETO FUTBOLA

Kenci 4 - Ancla Donsapor 5 (Euskal liga)
Irizabal Arrainak 9 - Kenci 4 (gipuzk.2mail)

PILOTA

Lagunak 22 - Behar Lana 11 (nagus.2mail)
Eskoriatza 22 - Lagunak 14 (kad.2mail)
Izarpe 14 - Lagunak 22 (juben.)

ESKUBALOA

Danibane 20 - Tecnifuelle 30
Tecnifuelle 33 - Escolapios 25

[AGENDA]

FUTBOLA Mintxetan

Zapatua, 16
13:00 Elgoibar - Aloña-mendi (jub.)
16:30 Haundi - Cultural Durango
Domekioa, 17
10:30 Elgoibar - Urola (O. inf.)
12:15 Elgoibar - Mutriku (neskak)

ESKUBALOA Kiroldegian

Zapatua, 16
16:30 Olalsa - Jauja (inf. nesk.)
18:00 Cometel - Ereintza (jub.nesk.)
19:30 Lojantzi - Askartza (Senior nesk.)
Igandea, 17
11:00 Hotel Txarriduna - Bergara (inf.mut.)

ESKU PILOTA Ikastolan

Baixakua, 15
22:00 Lagunak - Mundarra (2. mail. kas.)
Lagunak - Oiarpe (1.mail. jub.)

Elgoibarko SANLO E.K.T.ren deialdia

Elgoibarko SANLO E.K.T. ak abenduaren 26, 27, 28 eta 29 egunetarako, teknifikazio ikastaro bat antolatu du Olaizaga Kiroldegian.

Hori dela eta, 1993-1994-1995-1996 urteetan jaiotako neska mutilak direnak eta eskubaloian jokatzeko interesa dutenak, abenduaren 19an arratsaldeko 19:00tan Olaizaga Kiroldegitik pasa daitezke eta Iñaki Gilgatik galdetu.

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Pisia salgai Altzolan. 2 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Kanpoko aldean lursail txiki bat. Sartzeko moduan. Merkea.

619812448

▶ Etxea salgai Erretxindin. 3 logela, egongela, jangela, komuna, trastelekua, 2 igogailu. Berritua.

680707639

ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.

3 logela, sukaldea, komuna eta egongela.

Dena kanpoaldera.

Bizitzera sartzeko prest.

943 03 38 44

686 62 21 92

▶ Pisia salgai Verin-en (Galizia). Castilla Etorbidea, San Roke taberna ondoan. 3 logela, saloia, sukaldea, ganbara. Prezio onean. Jantzita. **666701846 (Maria)**

ALOKAIRUA

▶ Bi laguntzako etxea hartuko nuke alokairuan. 400 edo 450 euro ordaintzeko prest.

943530631

▶ Logela bat alokatzen dut.

635206436

▶ Etxebizitza alokatzen da Urasandin. **943 742727**

▶ Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. **697897899**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Garaje marraduna alokatzen dut Pista Beltzean.

943744398/943740070

▶ Garaje itxia alokatzen dut Madalan. **636097290**

▶ Garaje itxia alokatzen dut Urasandin. Bi solairukoa.

943740434

▶ Garajea saldu edo alokatzen dut Urasandi eta Madala artean dagoen Anayak eraikuntzan. Itxia, 2 pisukoa, bakoitzak 24m².

620431480

▶ Garaje itxia alokatzen dut Jausoro Plazan. 16m².

615787748

[AUTOAK]

▶ Rover 414 autoa salgai. SS-AX.

943 740251

▶ Fiat furgoneta salgai. SS-BC.

639101757

▶ Trialera motorra salgai. Gas Gas markakoa.

639101757

▶ Citroen C3 autoa salgai. Diesel, 70 zaldi, 2004koa. 7.400 euro.

660027976

▶ Motorra salgai. Vespa 200.1984.

943531771

[BESTELAKOAK]

▶ Taberna ederra salgai. Berritua. Negozioa martxa onean.

607457024/685777609

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro. Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

- Emakumea lanerako prest. **610632782**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu, taberna lan egiteko prest. **699576107**
- Ingeles klase partikularak ematen ditut etxeetan. Maila guztiak. Proficiency 18 urteik gorakoentzat. **606733850**
- Neska nagusiak zaintzeko prest. Interna moduan. **663572424 (Xiomara)**
- Esperientziadun estetizista lanerako prest. **696794107**
- Neska garbiketa lanak egin, edo nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. **617056828**
- Emakumea lanerako prest. **646832693**
- Emakumea lanerako prest. **666001575**
- Emakumea lanerako prest. **636362251**
- Emakumea lanerako prest. **646235195**
- Emakumea lanerako prest, externa edo interna moduan. **686578228**
- 1. eta 2. Hezkuntzako klase partikularak ematen ditut. **943531054**

- 60 urteko emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **943741872 (17:00etatik aurrera)**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Gavez edo egunez. Esperientzia daukat. **943744433**
- Emakumea garbiketa lanak egin, etxeko lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko prest. **686617930/943530130**
- Ingeles eta frantses klaseak ematen dira. Natiboa bi hizkuntzatan. **943743011**
- Mendaroko neska euskalduna umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna. **660674025**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. **699609190**
- Gizonezkoa lanerako prest. Obretako peoi, lantokian, garbiketa, gidari lanak... edozer. **666793486**
- Gizonezkoa lanerako prest. Obretako peoi, lantokian, garbiketa, gidari lanak... edozer. **666793486**
- Mutila lanerako prest. **671289583**
- Mutila lanerako prest. **667348215**

- Neska arduratsua arratsaldetan lan egiteko prest. **617033906**
- Neska umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. **617056828**

ESKAINZA

- Emakumea eskaintzen da lanerako. Astean 3 egun. **666701846 (Maria)**
- Emakumea behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. **637753755**
- Igande arratsaldetan emakume nagusi bat zaintzeko emakumea behar da. **609039815**
- Asteburuetan tabernan lan egiteko kamareroak behar dira. **670250429**
- Neska euskalduna behar da tabernan lan egiteko. **670654921**
- Pertsona euskalduna behar da tabernarako. Astean zehar eta asteburuak txandaka. **943742897**
- 35 urte bitarteko emakumea behar da goizez jantzidendan lan egiteko. Esperientziaduna. **676899604 (goizez)**
- Debako taberna baterako kamareroa behar da. **629720293**

- Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. **943744582 (20:00-21:00)**
- Gabi jatetxerako kamareroa behar da, barra eta jantokirako. **943 741230**

ABISUAK

- Abenduaren 2an kamara digitala galdu nuen (Sony). Ordain-saria emango dut. **943741270**
- Aterki handi bat aurkitu dut, funda eta guzti. **943741353**
- Hamster batentzako kaiola oparitzen dut. **626162005**
- Ermuaranbide kaletik San Frantzisko (King-Kong) bitartean umearen txaleko marroi eta ileduna galdu genuen. **667739843**
- Leku Eder parkekin tren geltokira bidean kartera bat arukitu dugu. **660056219**
- Ikastola inguruan berokia galdu nuen. Beltza, forro grisa, txanoa dauka. **943742524**
- Pultsera bat galdu dut Maialen izenarekin. Madala inguruan. **943740065**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Amaia** hilaren 12an 11 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Julen** joan zen domekan urtetxo bat egin zenuelako. Muxu handi bat denon partez.



▶ Zorionak **Ignacio** abenduaren 13an 11 urte egin zenituelako. Guraso, anaia Borja, osaba-izeba eta lehengusu Mikel eta Nerea.



▶ Zorionak **Iker!** Azkenik 6 urte, txapeldun! Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Halef** hilaren 9an 11 urte egin zenituelako. Familiakoen eta anaia Haritzen partez.



▶ Zorionak **Roke** zure 5. urtebetetzean. Sara eta familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Jon** bihar 6 urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Uxue** abenduaren 9an 2 urte egin zenituelako. Patxo handi bat etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Ixaso** gaur 11 urte egin dituzulako. Etxekoen, aitxixa, osaba Tito eta Oluren partez.



▶ Zorionak **Iskander** bihar 11 urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Eneritz** domekan 11 urte egingo dituzulako. Desiratzen zaitugu. Familiakoak eta bereziki, Arkaitz eta Maider.



▶ Zorionak **Inigo** asteartean urtetxo bat egin zenuelako. Familiakoen partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Maier eta Julen** zuen urtebetetze egunean. Aitor, Ainhoa, Zorione eta etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Sarai eta Danel** zuen 8. eta 2. urtebetetzean. David eta etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Maria eta amama Jesusa** zuen egunean. Ondo pasa! Familiakoen eta bereziki, Aneren partez.



▶ Zorionak **Nagore** hilaren 12an 4 urte bete zenituelako. Ea aurten Olentzerori txupeteak ematen dizkizun! Gurasoak eta Ainhoa.



▶ Zorionak **Gorka** abenduaren 6an 4 urte egin zenituelako. Mutil handia egin zara! Etxekoen partez.



▶ Zorionak **Ihantl** Ondo pasako zenuelakoan, patxo mordoak familiakoen partez.

[OKINDEGIA]



17 domekia FOTERO



[FARMAZIAK]

GUARDIA 24 ORDUZ
 15 Fernandez
 16 Yudego
 17 Yudego
 18 Zabaleta
 19 Etxeberria (Errosario)
 20 Ibañez
 21 Bidasolo
 22 Etxeberria (Santa Ana)

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK
IBAÑEZ
 Rekalde, 1 Soraluze.
 Tel: 943 75 16 38

FERNANDEZ
 Herriko enparantza 4, Garagarza.
 Tel: 943 75 61 42

ZABALETA
 Kalebarren, 9 Soraluze.
 Tel: 943 75 13 84



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa 943 03 26 10
 Larrialdiak 943 46 11 11
 Planning-a 943 74 29 50
 Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85
 D.YA (anbulantzia) 943 46 46 22
 Gurutze Gorria 943 74 38 64
 Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00
 Odol Emailak 943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua 943 74 43 66
 Kultura Zerbitzua 943 74 21 58
 Hirigintza 943 74 43 84
 Epaitetgia 943 74 16 30
 Haziena 943 74 44 14
 Mendaroko Udala 943 03 32 82
 Ongizate zerbitzua 943 74 10 08
 Udaltzuea 943 74 10 50
 Udaltzaingoa 943 74 13 94
 Debemen 943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak 943 74 04 42
 PESA (Eibar) 902 10 12 10
 Taxi geltokia 943 74 08 98
 Bizkaibus 902 222 265

BESTELAKOAK

BARREN astekaria 943 74 41 12
 Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
 Kiroldegia 943 74 44 15
 Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
 Liburutegia 943 74 35 25
 Musika Eskola 943 74 21 45
 Mintxeta 943 74 43 15
 Parrokia 943 74 08 42
 Postetxea 943 74 15 47
 Gazte Informazioa 943 74 14 61
 KZ gunea 943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
 Zaharren Biltokia 943 74 05 26
 Eguneko Zentroa 943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Institutua • Arreiturre 943 74 80 19
 •Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea 943 74 13 31



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak:
 7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00,
 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00,
 20:45

Larunbatak:
 7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10,
 18:45, 20:00

Igandeak eta jaiegunak:
 9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00,
 20:45

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak:
 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30,
 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak:
 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30,
 19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak:
 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:
 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45...
 ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak:
 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.
EUSKOTREN: 902 543 210

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:
 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena
 21:55.

Asteburuak eta jaiegunak:
 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 902 543 210

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 902 543 210

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[15 BARIXAKUA]

09:00-11:00 eta **18:00-20:00**
"IT KZGUNEA: INTERNETEKO
OINARRIZKO IKASTAROA
DOHAINIK" (16 urtetik
 gorakoentzat; hilaren 22 arte).

19:00-21:00 (ASTELEHENETIK
OSTIRALERA) MORKAIKO
MENDIZALE ELKARTEAREN
ARGAZKI ERAKUSKETA

Kultur Etxeko Sotoan (hilaren 22ra
 arte).

12:00-14:00 (ASTEBUKAERETAN)

19:00-21:00 "EL VUELO DE LA
CHICHIGÜA" ARGAZKI
ERAKUSKETA (urtarrilaren 7ra arte
 ikusgai, astelehenetik larunbatera
 19:00-21:00 eta igande zein jai
 eguneta itxita).

Kultur Etxeko erakusketa gelan.
 Antolatzailea: ONGARRI Kultur
 Elkartea.

20:00 MANIFESTALDIA IÑAKI DE
JUANAREN ASKAPENA ESKATUZ
 Plazatik

Antolatzailea: Ezker Abertzalea.

SINOPSISIAK

«Los Borgia»



[16 ZAPATUA]

11:00-13:00 JAIOTZEN XX. LEHIAKETARAKO IZEN EMATEA
Parrokiako lokalean.

[17 DOMEKIA]

10:00 MORKAIKORA MENDI IRTEERA
Ikastolatik.
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola.

11:00 JAIOTZEN XX. LEHIAKETA
Parrokiako arkupetan.

13:00 SARI BANAKETA
Parrokian.
JAIOTZEN ERAKUSKETA
Errosario kalean, 7 zenbakian.

[18 ASTELEHENA]

14:00-16:00 "WEB ORRIAK SORTZEKO IKASTAROA"
(Abenduaren 24ra arte).
KZ gunean.

[20 EGUAZTENA]

20:00 PARROKIAKO JAIOTZAREN INAGURAZIOA
Parrokiako kaperan.
Antolatzailea: Elgojaiotza.
(Ikusgai astelehenerik ostiralera, 17:30-20:30 eta larunbat zein jai egunetan, 10:30-13:30 eta 17:30-20:30).

20:00 MANIFESTAZIOA "MOBILIZAZIO EGUN NAZIONALA"
Plazatik.
Antolatzailea: Ezker Abertzalea.

[21 EGUENA]

14:15 IKASTOLAKO GABONETAKO JAIALDIA
Txikientzat.
Herriko Antzokian.

14:45 PILAR IKASTETXEKO GABONETAKO JAIALDIA
Pilar ikastetxean.

19:00 IKASTOLAKO GABONETAKO JAIALDIA
Gurasoentzat.
Herriko Antzokian.

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Los Borgia»
15, barixakua: 22:15
16, zapatua: 19:30-22:15
17, domekia: 19:30-22:15
18, astelehena: 21:30
"El Corral"
17, domekia: 16:30
«Nomadak tx (Z.K.)»
21, eguna: 21:30

EIBAR, UNZAGA

«Eragon»
15, barixakua: 19:30-22:15
16, zapatua: 17:00-19:30-22:15
17, domekia: 17:00-19:30-22:15
18, astelehena: 19:30-22:15
19, martitena: 19:30-22:15
20, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

(Rialto zine aretoa itxi egin da, martitzenean eskaini zuen bere azken film emanaldia).

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«Nomadak tx» (Z.K.)

Zuzendaria: Antonio Hernández
Antzezleak: Sergio Peris-Mencheta, Luís Homar.
Rodrigo Borgia Aita Santu izendatzen dute Erroman. Honek Batikanoa handiagotzeko, ahalik eta terrialde gehienak bere egin nahi ditu. Juan, bere seme-erria zaharrena, ejerzitoko kapitain izendatzen du. Cesar, berriz, kardinal egiten du, baina, honek bere anaiaren postua eskuratu nahi du. Juan batez, Juan hilik aurkitzen dute. Orduan, Cesarrek ejerzitoren kontrola hartuko du. Ordurako irudia, erromatar familiaren hegemonia arriskuan gongo da.



Zuzendaria: Raúl de la Fuente.
Antzezleak: Oreka Tx (Harkaitz Menez de San Vicente eta Igor Otxoa).
Txalaparta bakarra da musika tresnen artean. Bi lagunek jotzen dute. Bat egite horretatik sortzen den musika ez dagokio ez batera, ez besteari, biak elkar topatu eta elkarrekin aritzeari baizik. Txalaparta, pertsonen topaleku ez ezik, kulturen artekoa ere izatea nahi izan dute bidaia honetako protagonistek. Horrela, Indiako adivasiekin -kastagabetuak-; Laponiako samiekin; Mongoliako estepako biztanleekin; eta herri sahararrarekin batera bizi izan dira.

Atzera hegira



1953. urteko erretratu zahar hau **Ladis Iurretak** laga digu. Azpeitiko Garmendipe futbol zelaian aterata dago argazkia. Fleje San Pedro futbol taldea da hemen daukaguna. Garai hartan izen handia hartu zuen talde honek, eta Gipuzkoa eta Bizkaiko talde garrantzitsuen kontra jokatzen zuen. Besteak beste, Tolosa, Azkoiti, Azpeiti, Ondarru, Eibar... Barriolucio markesak finantzatzen zuen talde hau. 7 urte inguru iraun zituen eta gero, Elgoibar Txiki izena hartu zuen. Talde hau CD Elgoibarren harrobia zen. Gogora ditzagun zein diren futbolari hauek.

Goian, ezkeretik eskumara: **Pedro Gabilondo (entrenatzailea)**, **Pako Mugerza** (), **Jesus Rementeria**, **Eduardo Irusta** (), **Juan Mari Mugerza**, **Zubiaurre "Koble"** (mendaroarra), **Jose Riaño**, **Josetxo Odriozola** eta **Mikel Gorostiza (delegatua)**. Makurtuta, ezkeretik eskumara: **Lucas (masajista)** (), **Luis Fernando Santolaya** (), **Juan Jose Arillaga (Mexikon bizi da)**, **Pedro Jauregi**, **Ladis Iureta** eta **Juanito Iureta**.



ESKERTZA


2006ko abenduaren 8an hil zen
Mercedes Aldekoa Lazpitaren sendiak,
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Alexander Aceda Juaristi

X. URTEURRENA

*Lagun hintzenik Alex ezin egin uko.
Gure adixkidantza ez duk agortuko.
Sortaldean Izarraitz, sartaldean Urko.
Elur nahiz eguzkitan gaituk elkartuko.
Karakateko gaina horrexen lekuko.*



(1996-12-16)

GARONETAKO ARTISAU AZOKA 07

Galerias Parkeko Karpan, **Eibarren**

Abenduak 16tik Urtarrilak 5era - 11:00 - 14:00 / 17:00 - 21:00

*Elisabet Juana Iratxe Unanue Maria Irusta
Ione Martinez Eneritz Aristegi Elexamendi
Maite Alex Elizondo Oier Zuloaga Eskulan
Darma ta Rosa Garbi Igor Unanue Snoker*

Abendua 12:30 ^{or}	16 PERFORMANS NAITE ETA NEREA	Abendua 17:00 ^{or}	27 KAMISETA TAILERRA
21:00 ^{or}	KONTZERTUA NAPOKA IRIA	19:00 ^{or}	
Abendua 12:00 ^{or}	20 FORJA ERAKUSKETA SUOKER	Abendua 18:00 ^{or}	28 ANTZERKIA KIJU-KOLO
		Urtarrila 17:00 ^{or}	2 MANDALAS TAILERRA DARMA y ROSA
Abendua 12:00 ^{or}	21 SANTO TOMAS EGUNA	19:00 ^{or}	
		Urtarrila 17:00 ^{or}	4 PIN TAILERRA
		19:00 ^{or}	

Leguntzailea:



Eibarriko Udala

Antolatzailea:



Eibarriko
Artisauak

Dindeguntzailea:



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Lurrotako automobil familiarretan

70 urtetako esperientzia

edukitzea ez da kasualitatea.
Chevrolet Captiva berria
Begirada guztien zentrua.
Europarentzat bereziki egina.
5 eta 7 eserlekurekin.
Diesel 150 CV.
Gasolina motorra
136 CV eta 230 CV.
Captiva Gama
23.330 €-tik hasita.



Diesel 150 CV 4x4 29730€-tik hasita

3 URTEKO garantia
edo **100000 Km.**

Chevrolet Captiva

Giauto 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 - EIBAR - Tel.: 943 70 08 41
Karobi Industrialdea z/g - OLABERRIA - Tel. 943 88 51 50
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es

Chevrolet gehiago da.



CHEVROLET

Pozio gormendua Puntutala eta Balar Uhartetan. Captiva 2.4 LS eta Captiva 2.0 VCDI LT 5 eskerlekurekin (SEZ, mutirikala zerga, gurea eta Prover Plana Gasolina berri). Hileko beka eta arto.
Kontuero miltza (l/100 Km): 7,4-11,5. CO₂ igorpena (g/Km): 197-264. 3 urteko berria edo 100000 Km, Berrazari legean (25/2003) kalterik izan gabe.

Etixerako Nahiz Lanerako

Aholkularitza Teknikoa

Salnenta eta Konponketak

Software Berezia

Sareak

Zerbitzu Teknikoa

Web Diseinu eta Programazioa

Diseinu Grafikoa

Audio Digitala

Software Librea

Laster gure ateak denontzat irekita